

Behinola elkargune, orain zer?

Euskal literatur sistemaren osasuna epaitzeko ekoizpenari erreparatu ohi zaio: liburu kopurua, aniztasuna, kalitatea, salmentak... Beste bide bat hautatu dugu guk diagnostikoa egiteko. Uztan baino, landareetan jarri dugu arreta: zein bilakaera izan dute behinola idazle taldeek martxan jarritako argitaletxeek? Zergatik sortu dira berriagoak? Bada gehiagoren beharrik? Lagin murriz baina adierazkorra hautatu dugu erantzunak aurkitzeko.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

“TRUDITZEN ZITZAIGUN lan interesgarri asko kanpoan geratzen zirela argitaletxe gehienek merkatu ikuspegiarekin funtzionatzen dutelako. Alor ekonomikoa ekuaziotik ezabatzeak lan horiek argitaratzeko aukera eman digu”. Hala laburbiltzen du Iratxe Retolaza literatur kritikariak Edo! argitaletxearen sorreraren zergatia. Mahai beraren bueltan ditu, duela hiru urte sortutako argitaletxea euren borondatezko lanarekin elikatzen duten beste bi kide ere: Ibon Egaña kritikaria eta Oier Guillan idazlea. Bat datoz euskal argitalpenetan oso toki gutxi duten generoak zerrendatzerakoan: pentsamendua, saiakera, artea, antzerkia eta itzulpena. Hain justu ere, Edo!-k orain arte kaleratu dituenak alor horietako lanak dira.

Guillanek ez du atsegin, ordea, hutsunea betetzen dutela esatea. Ezinezkoa dela dio, hamar liburu soilik argitaratu dituztelako. “Esperimentu honek balio izan du hutsune horiek ikusarazteko eta frogatzeko beste kultur eredu batzuk ere badaudela: gauzak beste modu batera eginez gero, egon daitekeela hori baloratu eta irakurriko duen publiko bat”. Harpidedunen ekarpenak eta borondatezko lanak sostengatzen dute Edo!, eta argitara eman dituzten liburu gehienak agortu zaizkie dagoeneko. Azken urteotan sortu den argitaletxe txikitako bat da, Denon artean, Gaumin eta Pasazaite-rekin batera.

Edizioa editorearen gainera

Edo! modu asanblearioan kudeatzen dute, eta editore lana ere ez dute pertsona bakarra-

ren esku uzten. Bi edo hiru laguneko taldeek hartzen dute edizioaren ardura, ondoren zuzentzaile batek azken errepassoa eman aurretik. Liburu bakoitzak eskatzen duenaren arabeko taldea hautatzen dute gainera. Bere alde on eta txarrekin, eragin positiboa duela dio Ibon Egañak: “Prozesua beste bide batzuen aldean mantsoagoa gertatzen da, baina lana mimoz egitea lehenetsi dugu. Ohi-tuta ez dagoen sortzailearentzat luzeegia izan daitekeen arren, emaitzan aldea igartzen da.”

Edizioan jartzen dute arreta, ez editorearen figuran, Egañaren arabera: “Badira dena erabakitzeke boterea duten izen handiko editoreak, beste literatur sistematan batez ere.

Guk prozesuari ematen diogu garrantzia”.

Euskal editoreei begira jarrita, profil aniztasun falta aipatzen da maiz. Iratxe Retolazak ere bere egiten du analisi hori: “Bakoitza bere joerekin baina antzeko profila dute askok, eta sortzailearekin duten harremanetan, jokabideak ere antzekoak dira. Gizonezkoak

dira, gipuzkoarrak gehienak, klase sozial bertsukoak, belaunaldi berekoak, eta literatura ulertzeko modu jakin bati erantzuten diotenak”. Arrazoi historiko bati egotzen dio antzekotasun hori: “Euskal argitaletxe gehienak garai berean sortu ziren, eta orduan lan horretan aritu zirenak dira orain editore. Haien ahaleginari esker egin dute aurrera”.

Aldizkarien eboluziotik industriari

Arrazoi historiko horiek ongi baino hobeto ezagutzen ditu Josu Landa idazleak, Susa

Idazle-taldeek sortu zituzten gaur egungo argitaletxe asko, lotura estetiko eta ideologiko nabarmenekin. Urteekin elkargune izaera hori galdu egin dute ordea



Edo! argitaletxea modu asanblearioan kudeatzen dute. 2012an martxan jarri zen egitasmoa da azken urteotan sortu den editorial berrietako bat, Denon artean, Gaumin eta Pasazaiterekin batera.

argitaletxean baitabil sorreratik bertatik. 1983an abiatu zen, Maiatz eta Pamielaren garai berean eta ibilbide bertsua egin ondoren. Aldizkarien anparoen eta eboluzio natural gisa sortu zirela dio Landak. “Jada enpresa ikuspegia bazuten Elkarrek eta Ereinek izan ezik, garai hartan sortutako argitaletxeek aldizkari gisa ibilbidea egina zuten aurretik”. Horri esker, testuak maketatu eta papereratzeko gaitasuna zuten idazle talde mordoa ziren urte haietan. “Azken finean lehengai bertsua da aldizkari bat edo liburu bat egiteko behar dena. Testua, maketazioa, inprenta, papera...”.

Susaren kasuan, Luis Haranburu Altunak Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poema liburuari emandako ezezkoak piztu zuen zigilu propioa sortzeko grina. “Zertan ibili behar dugu ate joka gure motibazio edo nahien antipodetan dauden argitaletxeetan? Bultzada edo gogo hori zegoen orduan. Ikuspegi ideologiko batetik ere garrantzitsua zen guretzat produkzio bideen jabe izatea”. Gaur egunera etorrita, aldizkarien dinamiken faltak argitaletxe berrien sorrerarekin zerikusia baduela uste du Landak.

80ko hamarkadan sortutako argitaletxeek profesionalizaziorako bidea egin zuten apur-

tradEBI
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradebi.com



ka, Susan soldatapeko bakarra Gorka Arrese editorea bada ere. “Euskarazko produkzioak ofizialtasuna lortzeak eta horren inguruan eman zen instituzionalizatzeak, lanpostu mordoa sortu zituen. Horrek frankismo osteko aparraldia baretzearekin batera, pulstio eraldatzaile horren apaltzea eta ia-ia desagertzea ekarri zuen”.

Landaren arabera, liburu industriaren aldeko aldarria ere egin da urte askoan. “Ematen zuen zenbat eta lanpostu eta egitura gehiago izan, orduan eta indartsuagoa izango zela euskal kultura”. Dioenez, azken urteotan apaldu egin da diskurtso hori, baina garai hartan esan eta idatzitakoak ondo gogoratzen ditu: “Bazirudien argitaletxe txikiak soberan zirela; hobe zutela desagertzea”.

Argitaletxeak jada ez dira elkargune

Josu Landak berak aitortzen du lehenengo urteetan Susa argitaletxearen argitalpenak idazle talde jakin baten lanak zirela. Gaur egun ordea, lehen “pentsaezina” zen idazleek ere Susa argitaratzen dituzte euren lanak. Iratxe Retolazak orokortzat jotzen du transformazio hori. “Duela hogeit hamar urte idazleak eurak ziren argitaletxeak sortu zituztenak, eta lotura estetiko zein ideologikoa nahiko markatua zen. Orain idazleek erabiltzen dituzten plataformak dira, atxikimendua izan edo ez”.

Ildo beretik, argitaletxeak enpresa bilakatu diren heinean, elkargune izateari utzi diotela dio Guillanek. “Idazleek badituzte foroak,

Susa argitaletxe
Josu Landa, Iñigo
Aranbarri eta
Gorka Arrese
(bizkarrez)
artxiboko argazki
batean. Aldizkaritik
editorialera
eboluzio “naturala”
egin zuten 80ko
hamarkadan,
Pamielak eta
Maiatzek bezala.

“Garai batean ematen
zuen zenbat eta
lanpostu eta egitura
gehiago izan, orduan
eta indartsuagoa izango
zela euskal kultura”

Josu Landa

baina ez dira enpresa egitura duten argitaletxeak. Nahiko bilakaera naturala eta logikoa iruditzen zait”. Bat dator 2012an *Damutzen ez direnak* lehen eleberria kaleratu zuen Itxaso Araque idazlea ere. Argitaletxe kontzeptua errotik aldatzen ari dela dio: “Behar-beharrezkoak dira argitaletxe berriak, literatura kudeatzeko modu ezberdinak praktikan jartzeko eta eztabaida publikoa aberasteko. Baina, sortzaile talde batek ezinbestekoa al du argitaletxe bat ideiak gorpuztu eta lanak argitaratzeko? Edo nahikoa du kafetegi edo liburu-denda batean euren lanak plazaratzea?”.

Idazle gazteek ez dute argitaletxerik behar?

Itxaso Araquek 24 urte zituela plazaratu zuen bere lehen eleberria. Salbuespena da berea neurri batean: bi eskurekin –eta akaso bakarrarekin ere bai– zenba daitezke dagoeneko liburua argitaratu duten 30 urtetik beherako idazleak. Gehientsuenek Elkar argitaletxeak sustatutako Igartza eta Augustin Zubikarai bekei esker papereratu dute euren lehen lana. Araqueri halako deialdiak pozgarri egiten zaizkio: “Augustin Zubikarai beka irabazi ez banu, segur aski ez nuen eleberririk plazaratu ahal izango”. Izan ere, ez zaio sekula argitaletxe batengana hurbiltzea bururatu, leku hermetikoak iruditu baitzaizkio beti. Barne dinamikak ezagutzeari ulertu du ez dela hala, baina euren profil publikoa hobetzeko ahalegina egin behar luketela uste du.

Ba al dute aipatu bekek loturarik egungo gazteek argitaletxe propioak ez sortzearekin? Baietz uste du Josu Landak: “Idazle gazteek ez dute liburuak argitaratzeko plataforma propioak sortzeko beharrezana sentitzen. Itzali egin da inportso hori. Alde bategatik, pozgarria da. Esan nahi du orain dela hogeita hamar urte baino dezente hobeto gaudela, eta aukera gehiago dagoela argitaratu ahal izateko”. Araquek ordea ez du uste indar hori galdu egin denik, transformatu eta dibertsifikatu egin dela baizik. “Idazlegai gazteek aukera ugari dituzte euren lana online argitaratu eta promozionatzeko eta agian horregatik ez dute argitaletxe bat sortzeko beharrik ikusten”. Retolazak ere ez du uste gazteek argitaletxeak behar dituztenik: “Belaunaldi berrietan beharbada ahotsa hartzeko bidea jada ez da argitaletxea, ez dio erantzuten gaur egungo kultur ereduari. Iruditzen zait gazte asko dagoela kultur gintzan bere tokia egin duena libururik argitaratu gabe”. ■